

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ANDAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Jendaurrean jartzea etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa ordaindu behar dutenen errolda, eta borondatezko epean kobratzeko moduan jartzea 2024ko lehenengo seihilekoko ordainagiriak

Etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa (2024ko lehenengo seihilekoa) ordaindu behar dutenen kontribuzio errolda egin da, baita 2024ko irailaren 23an onetsi ere. Errolda hori jendaurrean egongo da, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hamabost egun baliodunez, interesdunek aztertu eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Interesdunek administrazio batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedientea.

Kontribuzio errolda jendaurrean jartzean, hura osatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, bat etorrit Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 98. artikuluan 3. apartatua xedatutakoarekin; dena den, interesdunek esleitu zaizkien kuoten aurkako berraztertze errekurtsoa aurkez dezakete, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsoak eta erreklamazioak administrazio batzarreko erregidore-lehendakariari aurkeztu behar zaizkio, adierazitako epean barruan.

Ordaintzeko borondatezko epea 2024ko urriaren 23an hasi eta abenduaren 23an bukatuko da, bi egun horiek barne direla.

Helbideratutako ordainagiriak 2024ko abenduaren 3an kobratuko dira.

Finantza erakundeetan helbideratutako ordainketak: administrazio batzarrak zordunketa zuzenean kudeatuko du ordainketa helbideratu den finantza erakundeetako kontuetan.

Finantza erakundeetan helbideratu gabeko ordainketak: tasaren ordainketa helbideratuta ez duten zergadunei etxera bidaliko zaie zor duten zenbatekoa ordaintzeko behar duten agiria.

Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrerarik egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekargu eta guzti, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Anda, 2024ko irailaren 24a

Lehendakaria
ANDRES ZUAZO ITURRATE